



Arartekoaren 2022R-687-22 Ebazpena, 2022ko ekainaren 27koa. Horren bidez, Gipuzkoako udal bati gomendatzen zaio indarririk gabe utz dezala animaliak eduki eta babesteko araudia urratzeagatik jarritako zehapen-ebazpen bat

Aurrekariak

1. Pertsona batek kexa jarri du Arartekoan, (...)ko Udalak zehapen bat jarri diolako, abandonatutako animaliei bide publikoan janaria emateagatik.

Kexagileak –zehaztutako pertsonaren ordezkari legez– kontatu duenez, 2022ko urtarrilaren 18an, (...)ko Udalak 300 euroko isuna jarri zion berak ordezkatzeko duen pertsonari, animaliak eduki eta babesteko (...)ko Udaleko Udaltzaren 25. artikulua hausteagatik. Horren arabera, debekatuta dago kaleko animaliei bide publikoan janaria ematea, besteak beste basakatuei.

2022ko otsailaren 3an, kexagileak berraztertzearen errekurtsoa aurkeztu zuen, ez zegoelako ados jarri zitzaion zehapenarekin. Izan ere, bere ustez, ordenantza horrek ez du lege-gaikuntza nahikorik animaliei bide publikoan jaten emateko debekua ezartzeko, Animaliak Babesteko EAEko urriaren 29ko 6/1993 Legean ezarritakoaren arabera (indarrean dago).

Bestalde, alegatzen zuenez, zehapena jaso duen pertsona ez litzateke inola ere izan behar arau-hauste horren arduraduna, % 82ko desgaitasuna duelako eta horrek bere ulermen-gaitasun intelektualari eragiten diolako. Azaldu duenez, desgaitasun horren ondorioz kasu horretan ezinezkoa zitzaion animaliei bide publikoan jaten ematea legez kanpo zegoela ulertzea. Jarritako errekurtsoan egoera hori egiaztatu zuen, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionaleko Probintzia Zuzendaritzaren balorazio-txostenaren bidez. Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren bi ebazpen ere alegatu zituen. Horietan, beste inguruabar batzuetan hasitako administrazio-espedito zehatzailea artxibatzea erabaki zen, agenteen aginduak ulertzeko daukan zailtasunen ondorioz erantzukizuna salbuetsi behar zitzaioela ulertuta.

2022ko martxoaren 17an, (...)ko Udalak berraztertzearen errekurtsoa ezestea ebatzi zuen. Zehapenaren lege-gaikuntzari buruz, ebazpenak honako hau baino ez zioen: zehapena jarri zela, urratu egin zirelako animaliak eduki eta babesteko araubidea eta arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko araubide juridikoa arautzen duen (...)ko Udalaren Udaltzaren (aurrerantzean, ordenantza) 25.1 eta 45.g artikulua. Bestalde, berraztertzearen errekurtsoaren gaineko erantzunak ez zuen uste zehatutako pertsonaren erantzukizuna salbuetsi behar zenik, administrazio horrek ezin izan baitzituen antzeman alegatutako inguruabarrak, ez zuelako desgaitasunaren irismena eta salatutako gertaerak lotura mugatzeko baliabide eta daturik.





2. Kexagileak Arartekora jo zuen, (...)ko Udalaren zehapen-ebazpenaren kontrako kexa azaltzeko. Izan ere, bere balorazioaren arabera, zehapena jaso zuen pertsonaren egoera pertsonalak zehapena artxibatzeko arrazoi aski ziren, alegazioan azaldu eta egiaztatu zen bezala.
3. Kexa izapidetzea onartu ondoren, 2022ko apirilaren 11n, Arartekoak informazioa eskatu zion (...)ko Udalari, bai gai honi buruz, bai kexagilearen aurka jarritako zehapen-espeditentari buruz. Era berean, erakunde honek udal-balorazioa eskatu zuen, egiaztatzeko, batetik, ea ordenantzak noraezean dauden animaliak elikatzeko debekua ezartzeko lege-gaikuntza duen, eta, bestetik, ea espeditentean gertaera horren erantzukizuna egozteko arrazoiak egiaztatu ziren.
4. 2022ko maiatzaren 16an, (...)ko alkateak txosten bat igorri zion Arartekoari, honako hau adieraziz:

“Dagokion espeditentea izapidetu ondoren ezartzen da zehapena, (...)ko udalaren animaliak edukitzea eta babestea eta arriskutsuak izan daitezkeen animalien araubide juridikoa arautzen duen Udal ordenantzaren 25.1 eta 45. G artikulua aplikatuz.

Zehazki 25.1 artikulua debeku hori ezartzen du:

‘25. Artikulua.- Eragozpenak eta espezieen ugaritzea.

1. Animaliek pertsoneri eragozpenak sortu edo ondasunak hondatu ez ditzaten, herritarrek animalien bat deslari edo bertan behera utzita ikusten badute horren berri emango diete udal zerbitzuei. Debekatuta dago kalean eta orubeetan jaten ematea usoei eta solte dabiltzan txakur, katu eta abarreko animaliei.

45. artikulua.- Urratze arinak.

g) Honako hauek dira arau-hauste arinak: Ordenantza honetako arauen beste urratze guztiak, larritzat edo oso larritzat sailkatuta ez daudenean.’

Zigortutako pertsonaren egozgarritasuna egiaztatzeari dagokionez, udalak ez du baliabiderik erreklamaziogileak egoera zehatz baten aurrean ulertzen ez duela baloratzeko. Hala ere, espeditentari erantsitako dokumentazioa ez da nahikotzat jo alegatzen duen ustezko adimen mugatua jokabide antijuridikoa egin izanari leporatzeko.

Erreklamatzailerari isuna jartzea ebazten duen Alkatetzaren dekretuari jarritako berraztertze-errekurtsoan, osasun-mugarik alegatu gabe justifikatzen du jokabidea. Arrazoitu egin du, esanez Udalak ez duela legea betetzen, eta ez dituela abandonatutako animaliak jasotzen, eta, ondorioz, bizilagunek jaten eman behar dietela animaliek sufri ez dezaten; eta, horren ondoren, Udalak zigortu egiten dituela animaliei jaten ematen dieten bizilagun horiek.

Esan behar da, udal-bulegoetan dagoen dokumentazioaren arabera, azken lau urteetan, erreklamatzaileaz gain, ez dagoela horrelako arau-hauste hauek





egiteagatik zigortutako herritar gehiago. Ildo harretan, behin eta berriz errepikatzen du jokabide hori erreklamatzailleak.

Adimen mugatua alegatu egiten da udaltzainen hitzak ulertu ezin direla jakinarazteko. Espedientean ez dago jasota gertakarien egunean udaltzainek erreklamatzaillearekin hitz egin zutenik gertakariak gertatu bitartean edo horien ondoren."

Ondorioz, udalaren erantzunaren arabera, udal-ordenantza da noraezean dauden animaliak elikatzeko debekua gaitzen duen administrazio-xedapena.

Zehapena jaso duen pertsonari erantzukizuna egotzi behar zaion egiaztatzean, (...)ko Udalak azaldu duenez errekurtsioan aurkeztutako dokumentazioa ez zen nahikoa salatutako pertsonaren desgaitasun intelektualaren ondorioz jarrera antijuridiko baten aurrean erantzukizunik ez zuela ziurtatzeko. Bestalde, udalak justifikatu du ez duela beharrezko baliabiderik kexagileak salatutako egoera ulertzeko gaitasunik ez duela baloratzeko.

5. Txostenean, administrazio-espedientearen kopia bat eransten du, eta, bertan, honako jarduera hauek azaltzen dira:

- 2021eko abuztuaren 6an, udaltzaingoko buruak ikuskapen-akta bat egin zuen. Horren arabera, salaketaren egunean kexagilea leihotik janaria botatzen ikusi zuen beste auzokide batek. Janaria bide publikoan zegoela baino ez zuen egiaztatu udaltzaingoak. Era berean, aurretik beste salaketa eta zehapen-espediente batzuk egon zirela ikusirik, kexagilearen erantzukizuna adierazi zuen: *"Abuztuak 6, bizi lagun batek berriro ikusi duela XX leihotik kaleko animaliei janaria botatzen, 000 zenbaki profesionala duen agentea gerturatu da eta egiaztatu du janaria bertan zegoela, halaber, XX kalean ere janaria botatzen ikusi izan dugu maiz, behin eta berriz errepikatzen den arazoa denez eta nahiz eta bere garaian salaketa espedientea irekita eta jakinarazita jaramonik egin gabe jarraitzen duenez, berriro beste espediente bat irekitzea eskatzen dizuegu"*
- 2021eko irailaren 3an, 167/2021 Dekretuaren bidez, alkateak zehapen-espedientea zabaltzea erabaki zuen, ordenantzako 25.1 eta 45. g artikulua urratu zirela iritzita.
- 2021eko irailaren 7an, udalak salatuari jakinarazi zion espedientea ireki zela eta 15 eguneko epea eman zion alegazioak aurkezteko.
- 2021eko azaroaren 18an, espedientearen instruktoreak zehapen-espedientea ebazteko proposatu zuen, ikuskapen-akta arau-haustea egin zela frogatzeko aski frogatzen zela iritzita, ustezko arduradunak ez baitzuen gaiaren gaineko alegaziorik aurkeztu. Proposamenaren arabera, gertaera horiek ordenantzaren 45. artikulua urratzen zuten. Arau-hauste hori





arintzat jotzen zen, eta, beraz, 300 euroko isuna proposatzen zen, aurretik arau-hauste bera egin zela kontuan hartuta.

- 2021eko azaroaren 18an, udalak salatuari jakinarazi zion ebazpen-proposamena, eta 15 eguneko epea eman zion alegazioak aurkezteko.
- 2022ko urtarrilaren 18an, 9/2022 Dekretuaren bidez, alkateak isuna jartzea erabaki zuen, ordenantza urratzeagatik. Hala, 2022ko urtarrilaren 20an jakinarazi zitzaion.
- 2022ko otsailaren 3an, kexagileak berraztertzeko errekurtsua aurkeztu zuen, jarritako zehapenarekin ados ez zegoela adierazteko. Errekurtsu horretan alegatzen zuenez, zehapena jaso zuen pertsonak % 82ko desgaitasuna zuen eta horrek bere ulermen-gaitasun intelektualean eragiten zuen. Horretarako, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionaleko Probintzia Zuzendaritzaren balorazio-txostena aurkeztu zuen (zeinak berariaz jasotzen baitzituen muga intelektualak), bai eta Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak beste zehapen-espeditente batzuetan jarraitutako irizpidea ere.
- 2022ko martxoaren 17an, (...)ko Udalak ezetsi egin zuen berraztertzeko errekurtsua, ez zuelako onartu bere desgaitasun intelektualaren zioz erantzukizuna salbuesterik, administrazio horrek ez zeukalako desgaitasunaren irismena mugatzeko datu eta baliabide nahikorik.

(...)ko Udalak igorritako informazioa eta kexa aztertu ondoren, Arartekoak egokitzen du honako gogoeta hauek egitea:

Gogoetak

- 1. Kexaren mamia.** Kexagileak Arartekoari jakinarazi zionez, ez zegoen ados (...)ko Udalak jarritako zehapen-ebazpenarekin, bi arrazoi desberdinen ondorioz.

Alde batetik, kexaren arabera, bide publikoan animaliak elikatzeagatik jarritako zehapenak ez dauka lege-gaikuntzarik arau-hauste hori arautzeko. Izan ere, animaliak eduki eta babesteko (...)ko Udalaren udal-ordenantzan soilik aurreikusten da.

Bestetik, kexagileak alegatu duenez, zehapena jaso duen pertsona ez litzateke salatuaren gertaeren errudun izan behar, (...)ko Udalak ez zituelako kontuan hartu salatuaren desgaitasunaren inguruabar pertsonalak, administrazio-erantzukizuna salbuesteko arrazoi izan beharko liritekeenak.

- 2. Zehatzeko ahalmena baliatzeko derrigortasuna.** Beste edozein gogoeta egin aurretik, kontuan hartu behar da administrazio publikoek zehatzeko ahalmena baliatzeko derrigortasuna dutela. Ahalmen hori baliatzeko derrigortasuna





Espainiako Konstituzioaren 9.3 artikulua ziozko arbitrariotasunaren debekuaren eta legezketasunaren printzipioaren ondorio saihestezina da. Legezketasunaren printzipioa delituetan nahiz administrazioko arau-hausteetan aplikatzen da. Hartara, administrazio publikoek, oro har, zehapen-ekintzaren ofizialtasunaren eta derrigortasunaren printzipioa aplikatu beharko dute.

Hori horrela, Arartekoak bere ebazpenetan adierazi izan duen bezala, administrazio publikoek, administrazio-araudiaren gaineko arau-hauste bat egon dela antzematen dutenean, zehatzeko ahalmen hori baliatzeko betebeharra dute.

Auzitegi Gorenak 2019ko urtarrilaren 28ko epaian adierazitakoaren arabera (494/2019 errekurtsioa), Administrazioak ezin dio utzi zehapenen gainean dituen eskumenak baliatzeari, *"bere eskumenak, gai honetan ere, nahitaez bete behar direlako, eta legezketasunaren printzipioa betetz gauzatu behar dituelako horiek esleituta dituen organoak"*.

- 3. Zehapen-prozeduraren printzipioak eta bermeak.** Nolanahi ere, arau-haustea egin dela eta zehapen-erantzukizuna dagoela zehaztean kontuan hartu behar dira kasuan kasuko zehapen-prozeduraren izapideak, administrazio-prozeduraren legediaren aurreikuspenen arabera.

Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak zehatzeko ahalmenaren printzipioak arautzen ditu. Horren barruan sartzen dira tipikotasunaren printzipioa (zeinaren bidez administrazioko arau-hausteak baitira soilik ordenamendu juridikoaren urraketak, Lege batean arau-hauste gisa aurreikusten direnak) eta erantzukizunaren printzipioa (zeinaren bidez zehapena jaso ahal baitute soilik arau-haustea eragiten duen gertaeraren arduradun diren pertsonak).

Horrenbestez, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeren 89. artikulua zehapen-prozeduraren instrukzio-organuari esleitzen dio gertaerak, horien kalifikazio juridikoa, arduraduna eta isuna zehazteko ardura.

Prozedura izapidetzean kontuan hartu beharko dira ustezko arduradunentzako eskubideak eta bermeak, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 53. artikuluan aurreikusitakoak. Horien artean nabarmentzekoa da honako hau: kontrakoa frogatu bitartean administrazio-erantzukizunik ez dagoela defendatzeko presuntziorako eskubidea.

Berme horien barruan sartu behar dira, era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen Zehatzeko Ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean aurreikusitakoak.

Konstituzio Auzitegiak hainbat epaitan errepikatu du (esaterako, irailaren 17ko 93/2018 epaian eta ekainaren 17ko 82/2019 epaian) administrazio-prozedura zehatzailleetan Espainiako Konstituzioaren 24. artikuluan aipatutako konstituzio-



bermeak aplikatu behar direla. Zehapen-prozeduran indarrean dauden bermeen artean aipatzekoak dira defentsarako eskubidea (edozein babesgabezia galarazten duena), akusazioaren berri izateko eskubidea eta defentsarako froga-bitarteko egokiak erabiltzeko eskubidea. Era berean, Konstituzioaren 25. artikulua araberan, zigor-legezkotasunaren printzipioa oinarritzeko eskubide bat da, administrazioko zuzenbide zehatzailerara hedatzen dena.

- 4. Tipikotasunaren printzipioa.** Abandonatutako animaliak bide publikoan elikatzeko ekintza zehatzeko lege-gaikuntzari eta tipikotasunaren printzipioari dagokienez, Animaliak Babesteko urriaren 29ko 6/1993 Legea aipatu behar da, Euskal Autonomia Erkidegoan etxeko animaliak, animalia etxekotuak eta gatibutasunean dauden animalia basatiak babesteko arauak ezartzen dituenak.

Kasu honetan, 6/1993 Legearen 4. artikulua honako hauek ezartzen ditu soilik: animalia hauek abandonatuta uzteko debekua, bizirauteko beharrezko elikagairik gabe uzteko debekua, edo ikuspegi higieniko eta sanitariorik desegokiak diren instalazioetan uzteko debekua.

Horren gainean, EAEko legediak ez du animalia basatiak elikatzeko debekurik sartzen. Soilik dio udalen eta foru-aldundien betebeharra dela abandonatutako animaliak jasotzeko zerbitzu bat ematea, udalerrian identifikaziorik gabe, bakarrik eta noraezean dabilzan animaliak barne.

Hala ere, horrek ez du esan nahi udalek ez dituztenik beste eskumen batzuk espazio publikoaren erabileren kudeaketarako eta bizikidetzarako arauak ezartzeko, kasu honetan aplikatzeko modukoak.

Urriaren 1eko 40/2015 Legearen 27. artikulua araberan, administrazioko arau-hausteak dira soilik ordenamendu juridikoaren urraketak, legeren batean halako arau-haustetzat aurreikusita daudenak, *"hargatik eragotzi gabe apirilaren 2ko 7/1985 Legearen XI. tituluan toki-administrazioarentzat xedatuta dagoena"*.

Ordenantza hauek arautzeko lege-gaikuntzari eta tipikotasunaren printzipioari dagokienez, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 139. artikulua aukera ematen die tokiko erakundeei tokiko interesekoak diren bizikidetzaren harremanak eta espazio publikoen erabilera era egokian arautzeko. Horretarako, sektoreko araudi espezifikorik ez badago, arau-hausteen motak ezar ditzakete, eta kasuan kasuko ordenantzetan jasotako betebeharren urraketan, debekuen edo mugen ziozko zehapenak jarri.

Are gehiago, Tokiko Autonomiako Europako Gutunak (1985eko urriaren 15koa, Espainiak 1988ko urtarrilaren 20ko tresnaren bidez berretsia) tokiko autonomia eta subsidiarotasunaren printzipioa aitortzen ditu. Printzipio horren arabera, tokiko erakundeek, legearen eremuaren barruan, askatasun osoa dute beren ekimenaz baliatzeko beren eskumenetik kanpo ez dagoen edo beste agintaritzan bati esleitzen ez zaion gai orotan.



Gai horiek arautzeko, udalek espazio publikoen erabilerak eta auzokideen arteko bizikidetzaharremanak arautzeko ahalmenak dituzte. Horren harira, Euskadiko Toki Erakundearen apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. artikulua udalerrien berezko eskumen gisa jasotzen ditu espazio publikoko bizikidetzaharremanen antolamendua eta kudeaketa, bide-garbiketa, eta konpainiako animalien antolamendua eta kudeaketa.

Tokiko autonomiari dagokion eskumen-ereduan, Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak, 2019ko abenduaren 13ko 3912/2019 epaian, gaiaren bilakaera jaso du, legezketasunaren printzipioaren lotura positibotik (non udalbatzaren jardura aurreikusten zen soilik sektoreko legedian alde aurretik gaitutako moduan) lotura negatibora, zeinaren arabera, udalek jarduteko aukera baitute, alde aurretiko lege-gaikuntzarik gabe, beren eskumenetako gaietan ordenantzak ezarriz, baldin eta hori egitean ez badute urratzen edo kaltetzen egon litekeen legedi sektoriala.

Hau da, lotura negatibo horrek (...)ko Udalari aukera ematen dio bere ordenantzan ezar dezan noraezean edo abandonatuta dauden animaliei bide publikoan janaria emateko debekua. Jarrera hori arau-hauste arin gisa tipifikatuta dago eta, arau-hausterik badago eta horren gaineko prozedura egokia izapidetzen bada, dagokion zehapena jarri beharko da.

- 5. Erantzukizunaren printzipioa.** Salatzailaren erantzukizuna zehazteari buruz, urriaren 1eko 40/2015 Legearen 28. artikulua arabera, administrazioko arau-hauste bat eragiten duten gertaeren ziozko zehapena jaso ahal izango dute soilik dolo edo erruduntasunaren zioz horien arduradun diren pertsonak.

Konstituzio Auzitegiaren arabera, erruduntasunaren printzipioa oinarrizko egiturazko printzipio bat da, bai zigor-zuzenbidean, bai administrazioko zuzenbide zehatzailean (guztien lekuko, 14/2021 epaia, urtarrilaren 28koa, 5. oinarri juridikoa). Ondorioz, konstituzioaren arabera ez da zilegi *"zuzenbide zehatzaileak zigorrak ezartzean emaitza hutsa hartzea kontuan, ustezko subjektu arduradunaren jarreraren zilegitasuna kontuan hartu gabe"*.

Horrenbestez, erruduntasunaren printzipioak errurik gabeko erantzukizuna galarazten du. Beraz, ekintza zigorgarriaren egiletza zehazteko beharraz gain, pertsona jakin bati egotz dakioken doloaren edo zurgabetasunaren presentzia zehazteko ere eskatzen du.

Printzipio hori errugabetasunaren presuntziorako eskubidearekin lotu behar da (Espainiako Konstituzioaren 24.2 artikulua), horrek bermatu egiten baitu zehapenik ez jasateko eskubidea, erruduntasuna ezarrita geratu ez denean, arrazoizko zalantza ororen gainetik, zehapen-prozeduraren instrukzio-fasean zehar.

Horregatik, instrukzio-fase horretan planteatu eta bildu behar ditu administrazio-organoak dagozkion frogak. Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak martxoaren 19ko



228/2018 epaian ezartzen duenez, *“egozketa, erantzukizun edo erruduntasunaren epaia datu objektiboekin ezarri behar da, gertaera egotzi ahal izateko”* ustezko arduradunari.

- 6. Salatutako gertaeren zuriketa-frogaren balorazioa.** Gai honetan, zehapen-espeditentearen instrukzioan zehar salatutako gertaeren gainean aurkeztutako zuriketa-frogei buruzko balorazioa egin beharko litzateke. Kasu honetan, espeditentearen instruktoreak zehapen-espeditentea ebazteko proposatu zuen, erantzukizuna salatuari egotzita, arau-haustea egin zela egiaztatzeko zuriketa-froga gisa udaltzaingoaren ikuskapen-akta soilik hartuta oinarritzat. Horren gainean, ustezko arduradunak bere kontrako alegaziorik aurkeztu ez zuela justifikatu zuen.

Egia da funtzionarioek formalizatutako aktak zuribide-frogatzat jotzen direla kasuan kasuko administrazio-agirian egiaztatutako gertaeren gainean, alegazioetan kontrakorik frogatu ezean. Izan ere, funtzionario horiei agintzaritzako agentearen izaera ematen zaie.

Hala ere, erreklamazioan azaldu den kasuan, kontuan hartu beharko litzateke agintaritzako agenteak aktan ez zuela jaso salatutako gertaeren egiletzaren edo erantzukizunaren gaineko ebidentzia zuzenik.

Igorritako informazioaren arabera, bide publikoan janaria zegoela egiaztatu zuen agintaritzako agenteak, ez besterik. Agenteak ez zuen arduraduna identifikatu une horretan. Aktaren arabera, auzokide batek (ez da zehazten gehiago) salatua ikusi zuen janaria botatzen.

Horregatik, espeditenteak zantzu huts bat baino ez zuen aurkeztu froga gisa, hau da, identifikatu gabeko hirugarren baten bertsioa, zeinaren deklarazioa ez baitzen sartu espeditentean. Ondorioz, aktan hirugarren baten deklarazioaren gaineko erreferentzia egite hutsak ez ditu berez sortzen agintaritzako agentearen egiazkotasunaren printzipioaren ondorioak.

Zantzu horrek ez luke froga nahikorik eragingo salatutakoaren erruduntasunaren gaineko arrazoizko epai bat ezartzeko. Are gehiago, kontuan hartuta udal-txostenak honako hau aitortzen duela: *“espeditentean ez da ageri gertaeren egunean udaltzaingoko agenteek kexagilearekin hitz egin zutenik gertaerak jazo ziren bitartean edo ostean”*.

Arartekoaren iritziz, froga aski ote den egiaztatzeko orduan dauden zalantzen zioz, gomendagarria litzateke kexagileari dagokion errugabetasunaren presuntzioa gailentzea eta, horren arabera, egokia litzateke bere garaian jarri zitzaion zehapena indargabetzea.

- 7. Erantzukizuna salbuesteko arrazoiak.** Zehapena indargabetzeari buruzko ondorio hori gorabehera, erakunde honen ustez interesgarria da erreklamazioan interesdunaren erruduntasunari buruz azal dutako azterketarekin jarraitzea. Kasu



honetan, bere desgaitasun intelektuala alegatu zuen, bide publikoan animaliak elikatzea jarrera antijuridiko bat dela ulertzeko zailtasunak zituenaren adierazle.

Ondore horietarako, aipatzekoa da kasu batzuetan jarrera antijuridikoaren ustezko egilea bere erantzukizunetik salbuetsi daitekeela, eta, beraz, bere zehapena indarrak gabe utzi.

Halaxe litzateke Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen Zehatzeko Ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legearen 6. artikulua kasuan. Artikulu horrek erantzukizuna salbuesteko arrazoi gisa aitortzen ditu honako hauek: *"Kode Penalean jasota dauden egoerak ezarriko dira, baldin eta kasuan kasuko arauhaustearen eta kasuan kasuko arlokako araudiaren ezaugarriekin eta helburuarekin bateragarriak badira, eta, hala egokituz gero, araudian zehaztutako matizazioekin bateragarriak badira"*.

Horren gainean, Zigor Kodeko 20. artikulua erantzukizuna salbuesteko arrazoi gisa jotzen du: *"Arau-hauste penala egitean, egitatea zilegizkoa ez dela ulertu ezin duena edo ulermen horren arabera jardun ezin duena, edozein anomalia edo aldakuntza psikikok eraginda"*.

Kasu honetan, desgaitasun intelektual jakin bat duten, eta, ondorioz, beren jarrerak antijuridikoak direla ulertzeko zailtasunak dituzten pertsonak jaso behar dira.

Erantzukizuna salbuesteko kasu horiek aplikatzeko, funtsezkoa da ustezko arduradunak era egokian alegatzea eta egiaztatzea egoera hori, administrazio-prozeduran zehar. Instrukzio-prozeduran egoera hori argudiatzen ez bada, ezinezkoa izango da administrazio jarduleak erantzukizuna salbuetsi edo arintzen duen egoera horren berri izatea. Hartara, frogaren ardura, hasiera batean, erantzukizuna salbuesteko arrazoi hori alegatzen duen pertsonari egotziko zaio.

Hala ere, desgaitasunen bat duten pertsonen eremuan, kontuan hartu behar da beren zaurgarritasun-egoeraren ondorioz agintari publikoen aldetik arreta berezia behar dutela, modu egokian bermatzeko beren eskubideak guztiz baliatu ditzaketela. Hala, edozein egintza edo ez-egite saihestu nahi da, arrazoi horren ziozko diskriminazio posible baten edozein zantzu alden du ahal izateko.

8. Desgaitasunen bat duten pertsonen bermeak zehapen-prozeduran. Desgaitasuna Espainiako Konstituzioaren 14. artikuluko diskriminazioaren debekua eta legearen aurreko berdintasunaren printzipioa babesten dituen egoera pertsonala da.

Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren esparruan, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren arabera, Hitzarmenaren 14. artikuluan aipatutako diskriminaziorik ezaren printzipioa desgaitasuna duten pertsonen buruzkoa ere bada, *"bereziki zaurgarriak"* diren taldeen barruan sartzen baititu desgaitasuna dutenak (besteak beste, Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren 2009ko apirilaren 30eko epaia, Glor Suitzaren kontra).





Desgaitasunen bat duten pertsonen eskubideei buruzko NBEren 2006ko abenduaren 13ko Hitzarmenak (Espainian indarrean denak 2008ko maiatzaren 3tik), babestu egiten ditu *"epe luzeko gabezia fisiko, mental, intelektual edo sensorialak dituztenak"*. Kasu honetan, Hitzarmenak desgaitasunen ziozko diskriminazioa galarazten du, baldin eta horren ondorioz giza eskubideak berdintasun-baldintzetan baliatzea eragozten bada.

Desgaitasunen bat duten pertsonen eskubideen babes juridikoa azaroaren 29ko 1/2013 Errege Dekretu Legegilearen bidez aitortu zen. Horren bidez, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onartzen da. Lege honen 4. artikulua adierazten duenez, lege honen ondoretarako, desgaitasuna duten pertsonatzat jotzen dira ehuneko 33ko desgaitasun-maila edo altuagoa duten pertsonak. Zehazki, xedapen horrek berariaz jasotzen ditu desgaitasunen bat duten pertsona gisa Gizarte Segurantzako pentsiodunak, ezintasun iraunkorra badute: ezintasun osoa, absolutua edo handia.

Konstituzio Auzitegiak bere irizpena eman du desgaitasunaren ziozko diskriminaziorik ezaren eta tratu-berdintasunaren eskubideari buruz (Espainiako Konstituzioaren 14. artikulua) eta, kasu honekin lotuta, berme guztiak ahalbidetzen dituen prozedurarako eta errugabetasun-presuntziorako eskubideari (Espainiako Konstituzioaren 24.2 artikulua) eta erruduntasunaren printzipioari buruz (Espainiako Konstituzioaren 25.1 artikulua).

Martxoaren 15eko 51/2021 epaian, Konstituzio Auzitegiak babes-errekurtso bat ebatzi du, diziplina-zehapen baten kontra. Bertan, desgaitasunaren ziozko diskriminaziorik ez jasateko eskubidea ustez urratu izana planteatzen da, eta, gainera, administrazioaren jarduera zalantzan jartzen da, ez diolako erantzun egokirik eman arrazoi horren ziozko diskriminazio posible batean planteatutako zantzuei.

Konstituzio Auzitegiak gai hori jorratzen zuen tutoretza judizialaren eremutik. Hala, instrukzio-organoari betebeharrak positiboak ezartzen dio, zehapen-prozeduretan egokitzapen arrazoizkoak egotearen gaineko edozein zalantza argitzeko beharrezko frogak garatzeko, desgaitasun intelektuala duen pertsona baten defentsarako eskubidea zaintze aldera.

Horretarako, beharrezkoa da alde zuzenetik alegatzaileak zantzuren bat aurkeztea, bere zaurgarritasuna murriztu ahal izateko. Betebeharrak hori betetakoan, frogatzeko ardurak administrazio-organuari dagokio. Kasu honetan, administrazioak frogak aski aurkeztu beharko du salaketa jasotzen duenak (desgaitasuna duen pertsona) bere arau-haustearen ziozko ondorioak ulertzeko gaitasun nahikoa duela egiaztatzen duten prozedurako bermeak ziurtatzeko. Izan ere, hala ez bada, bere erruduntasuna salbuetsi edo beren erantzukizuna arintzeko aukera planteatu beharko luke.



Kasu honetan, epaiak honako hau ezartzen du: *“Kasu honetan dauden elementu guztien balorazio-faltak frogaren kargaren gaineko inbertsio desegokian dauka jatorria. Izan ere, kexagileak diskriminazio-zantzu nahikoa aipatu zituen unean egin beharko litzateke hori.*

Frogaren kargaren inbertsioaren doktrina, 3 b) oinarri juridikoan azaldutako eran, administrazioaren edozein jarduera-eremutan aplikatzen da, bai hautazko edo arauzko ahalmenak baliatzean, bai diziplina- edo zehapen-ebazpenak hartzean.”

Gai horren garrantzia agerian jarri du Giza Eskubideen Europako Auzitegiak, besteak beste honako auzian: Vaudelle Frantziaren kontra (2001eko urtarrilaren 30a). Kasu honetan, Europako Auzitegiaren ustez defentsarako eskubidea urratu zen (Giza Eskubideen Europako Hitzarmeneko 6.3 artikuluan aurreikusitakoa), senide baten zaintzapean zegoen pertsona baten kontrako zigor-jardueran. Izan ere, agintaritzak nazionalak ez zioten bitartekorik eman demandatuari, martxan zegoen prozedura ulertzeko. Halaber, ez zioten zehatz-mehatz azaldu bere kontra aurkeztutako akusazioaren izaera eta arrazoia.

- 9. Frogaren kargaren balorazioa aztertutako kasuan.** Aurrekarietan ageri denaren arabera, zehapen-espeditatea izapidetu bitartean salatzaileak ez zuen inolako alegaziorik jarri bere desgaitasun-egoerari buruz. Ondorioz, (...)ko Udalak ezin izan zuen jakin inguruabar hori, zehapen-ebazpena arte.

Berraztertze errekurtsoaren fasean soilik alegatu zuen bere ordezkariak salatuak desgaitasun intelektual bat zuela eta horrek bere ulermen-gaitasun intelektualean eragiten zuela, hau da, salatuak ezin izan zuela ulertu gertaerak legez kanpokoak zirela. Horretarako, ordezkariak desgaitasun-egoera egiztatu zuen, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren txosten baten bidez. Bertan, kexagilearen ezintasun iraunkorra baloratzen zuen eta berariaz jasotzen zituen bere muga intelektualak.

Horrenbestez, kontuan hartu behar da Gizarte Segurantzaren ziurtagiriak (errekurtso honetan aurkeztutakoak) desgaitasuna duen pertsonatzat joko lukeela, azaroaren 29ko 1/2013 Errege Dekretu Legegilearen 4. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Kasu honetan, interesdunak desgaitasun intelektuala duen pertsona bat dagoelako zantzua azaldu ondoren, desgaitasunaren ziozko diskriminazioaren gaineko konstituzio-doktrina eta frogaren kargaren banaketa aplikatuz, udal-administrazio horren ardura litzateke, gutxienez errekurtsoa ebazteko fasean, aztertzea ea alegatutako desgaitasun intelektualak bere jarrera legez kanpokoak zela ulertzeko ezintasuna eragin zezakeen.

Hala ere, udalak berraztertze errekurtsoaren gainean emandako erantzunak ez zuen aski eta modu arrazoituan baloratu zehatutako pertsonaren erruduntasunaren gaitasuna. Horren gainean, udal-erantzunak honako hau baino



ez zuen adierazi: *“Udalak ez dauka baliabiderik kexagileak egoera zehatz bat ulertzen ez duela baloratzeko”.*

Kontuan hartuta azken inguruabar hori, bai eta seigarren atalean jasotako frogaren nahikotasunari buruz piztutako gainerako zalantzak, gomendagarria da jarritako zehapena berrikustea, kexagilearen erruduntasunaren presuntziorako eskubidea gailendu behar dela gogoan izanda.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak — erakunde hau sortu eta arautzekoak — 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

Arartekoak (...)ko Udalarari gomendatzen dio indarririk gabe utz dezala 2022ko urtarrilaren 18ko 9/2022 Dekretua, zeinaren bidez kexagileari 300 euroko isuna jarri baitzion, animaliak eduki eta babesteko (...)ko Udaleko Udal Ordenantza hausteagatik.

Era berean, Arartekoak (...)ko Udalarari gogorarazten dio zehapen-espedienteak izapidetu bitartean, pertsona batek desgaitasun intelektualaren zantzu aski alegatzen duenean, administrazioak beharrezko frogak aurkeztu beharko dituela, modu arrazoituan eta arrazoizkoan egiaztatzeko ea egoera hori esanguratsua izan den egiaztatutako gertaeran duen erruduntasun-gaitasuna zehazteko.

